

etxerat

euskal errepresaliatu politikoen senide eta lagunak

familiares y allegados de represaliados políticos vascos • parents et amis de prisonniers et réfugiés politiques basques

hilabetekaria

2014uztaila-abuztua

sakabanaketa

466 euskal preso politiko 76 espetxetan sakabanatuta

- **362** euskal preso politiko espainiar estatuko **44** espetxetan sakabanatuta
- **98** euskal preso politiko frantziar estatuko **27** espetxetan sakabanatuta
- **5** euskal preso politiko Euskal Herriko **3** espetxetan daude
- Euskal preso politiko 1 Ingalaterran
- Euskal preso politiko 1Portugalen
- **7** euskal preso politiko gaixo larri espetxe arinduan

- **65** euskal preso político Euskal Herriatik **1.000 -1.100** kmtara dauden espetxeetan
- **130** euskal preso político Euskal Herriatik **990-800** kmtara bitartean espetxeratuak
- **166** euskal preso político Euskal Herriatik **790-500** kmtara bitartean espetxeratuak
- **32** euskal preso político Euskal Herriatik **490-400** kmtara bitartean espetxeratuak
- **69** euskal preso político Euskal Herriatik **400** km bainan gutxigora espetxeratuak
- **2** euskal preso político Portugal eta Ingalaterran

Destino aldaketa:

Madina Etxebarria, Tomas (Galdakao) Soto del Realetik , Foncalentera
Goñi Lara, Luis (Iruñea) Darocatik, Almeriara
Vila Mitxelena, Fermin (Irun) Soto del Realetik ,Villenara – Alacantera
Fuentes Villota, Raul (Bilbo) HPM Long Lartinetik(Ingalaterra) , Soto del Realera espainaratua

Askatasunak:

Aranalde Olaondo, Jokin (Ibarra) Behin behineko askatasunean
Elorza Zubizarreta, Mª Jesus (Eibar) Behin behineko askatasunean
Hidalgo Lertxundi, Aimar (Getxo) Zigorra beteta
Beristain Urizarbarrena. **Iker** (Donostia) Zigorra beteta

Espetxeetan

Kepa Arkauz euskal preso politikoa erasotu egin dute Parisko Justizia Jauregian

Kepa Arkauz arrasateko euskal preso politikoari eraso egin zioten Parisko Justizia Jauregiko gendarmeek iragan uztailaren 16an. Le Vert epaileak deituta entzutegira eraman zuten euskal herritarra galdeketa egiteko. Bertara iristean funtzionarioek probokazioekin hasi zitzaizkion, "ez nengoela nire etxean, bertan beste euskaldunik ez zegoela" - horrelako aipamenak eginez; Igor Uriarte bertan egon arren.

Preso arrunt batekin zelda partekatu behar zuela esan ziotenean, arrasatearrak, ukatu egin zuen. Beraiekin hitz egin eta bakarrik geldituko nintzela aipatzean zeldan sartu zen baina, momentu hori probestu zuten preso arrunta ere zelda berdinera sartzeko. Jabetzean kanporantz bultzaka hasi zen eta lau funtzionarioren artean heldu zuten orduan. Funtzionarioetako betek besoa lepotik bueltan pasatu eta gogor estutzen hasi zitzaion, ito nahian bezala. Bitartean besteek eskuetatik heldu eta lurrera botatzen saiatu ziren. Lauen artean helduta ere zeldatik irtetea lortu eta atetik 5 m aldendu zen. Lurrera erortzen ez zela ikusirik, bertan askatu eta tonu gogorrean elkarrizketa bat izan zuten.

Erabakiz aldatuko ez zuela jabeturik, bakarrik utzi zuten zeldan. Oihu eta zaratak entzunda goiko pasiloko ziega batean zegoen Igor Uriarte deika hasi zitzaion. Orduan, komunikazioa eteteko, elkarrekin ez hitz egiteko, beste galeria batera mugitu zuten.

Erasoaren ondorioz lepoaren atzealdean atzamarkada bat eta ubeldura txiki bat izan ditu.

Arkauz bakartua, Villepinte-ko espetxean

Bestalde, ekainaren 6an Iñaki Dominguez espainaratu zutenetik, Josu Arkauz bakartuta dago Villepinteko espetxean, gainontzeko kolektiboko kideengandik baztertuta. Sei aste hauetan Le Vert epailearekin kontaktatu arren, egoera ez da aldatu.

Epailearen bulegoan egonik, gaiarengatik galdetu zuen zuzenean eta oraindik arrasatearrarekin zer egin erabaki gabe duela erantzun zion. Hori dela eta, Kepa Arkauzek, hurrengo asteetan egoera luzatuz gero borrokaldi bat hasteko asmoa duela iragarri du.

Urtebetez medikuarekin zita itxaroten egon ostean hitzordua galdu du Xabier Aranburuk Lyon–Corbas espetxean

Urtebete zeraman Xabier Aranburu Ondarruko euskal preso politikoa medikuarekin zuen hitzorduaren zain. Behazun harriak ditu ondarrutarrak eta, sarritan, min izugarriak izaten ditu horren ondorioz.

Asteartean, abuztuak 5, zuen zita medikuarekin. Ebakuntza egin ala ez aztertu behar zuten Lyon-go ospitalean zirujauarekin. Goiz goizetik funtzionarioek, ahaleginak egin zituzten ika-mika egon zedin eta hitzordua galdu zezan Xabier Aranburuk. Azkenean, lortu zuten, Xabier esposatua mitard-era eramatea eta zirujauarekin zuen hitzordua galtzea.

Ostiralean, zigorrak erabakitzen dituen komisioa bildu zen eta AranburuI 20 eguneko zigorra jartzea ebatzi zuten gainera.

Xabier Aranbururen osasun eskubidea urratua izan da. Urtebete daramate ondarrutarraren osasun eskubidea etengabe urratzen eta, berriz ere, bere eskubideak urratu egin dizkiote.

Fleury: Euskaldunentzako neurri bereziak

Fleuryko espetxean bizi baldintzek okerrera egiten ari dira. Orain arte, bisiten ostean, gela batera eramaten zituzten euskal preso politikoak hauek biluztu eta gorputz miaketa bat egiteko. Arropak banan banan hartzen zituzten eta erraketa batekin arakatu egiten zituzten. Gero, euren gorputzak... hankak altzatuz, batzutan belaunetan ipinita salto egin eta abar.

Orain arte, bi era zeuden miaketa hauek egiteko. Presoa biluztaraztea ala raketa pasatzea. Lehen, euskaldunak biluztarazten zituzten. Orain, aldiz, bi sistemak aplikatu nahi dizkiete: alde batetik biluztarazi eta, bestetik, raketa pasatu. Neurri hau euskaldunentzako neurri berria da, euskaldunei bakarrik aplikatzen zaie tratu umilgarria.

Abuztuaren 8an, neurri berri hau Ibon Goieaskoetxea Gernikako presoari aplikatu zioten.

Bisita eta gero miaketa gelara eraman zuten Ibon Goieaskoetxeari erraketa pasatu nahi izan zioten. Berak esan zien erraketa pasatzen bazioten orduan

berak ez zeukan biluztu beharrik. Beraiek baietz eta biluztu egin zen. Baina arropei erraketa pasatu eta gero saiatu ziren berari, biluztuta zegoen bitartean, erraketa pasatzen ere bai. Goieaskoetxeak ezetz esan zien, nahikoa zelakoan eta, haien nagusi batekin hitz egiteko aukera eskatu zien. Funtzionarioek ezetz eta erraketa pasatu behar ziela euskaldunentzako arauak berriak zirelako. Hau da, bigarren aldia da funtzionario batek aipatzen duela arrazoi berdin eta berri hau.

Fleuryko modulu guztietara zabaldu duten neurria da hau. Beste behin, pertsonen oinarrizko eskubideak urratzen dituen neurria da hau.

Tarasconeko espetxera bidean transitoan hilabeteak daramaten hiru euskal preso politikoek borrokaldia abiatu dute

Zuhaitz Errasti eskoriatzarra, Asier Ezeiza hernaniarra eta Ekaitz Sirvent zarauztarrak hilabeteak daramatzate Marseillako espetxean Tarasconera eraman behar dituen trasladoaren zain. Hirurek dute destino moduan Frantziako eki-hegoaldean dagoen espetxe hau, Euskal Herritik 750 kilometrotara. Arazoa, ostera, Marsellatik mugitzen ez dituztela da. Asier Ezeiza maiatzean eraman zuten Marseillara, ekainean, Zuhaitz Errasti eta, uztailean, Ekaitz Sirvent zarauztarra.

Marseillako espetxean pairatu behar dituzten baldintzak oso txarrak dira bai elikadura aldetik baita bizi baldintzetan ere. Ez hori bakarrik, Marseillako espetxea destino ez dutenez, egonkortasunik ere ez dute. Hau da, euren eguneroko bizitza baldintzatuta dago, besteak beste, preso gazteen moduluan daudelako baina, egoera honek, adibidez, bisitak ere baldintzatzen dizkie.

Hau guztia dela eta, Marsellan preso dauden euskal preso politikoek hainbat borrokaldi abiatu dituzte. Horien artean, blokeoak egin dituzte patioan, hau da, patiotik ziegara itzultzean, plantatu egin dira. Hori dela eta, zigortu egin dituzte eta, 14 egun mitard edo zigor ziegan pasa ostean, berriz ere, zigor ziegan aurkitzen dira orain beste 14 egunetarako.

Abuztuaren azken astean jakitera eman zutenez, gainera, egoera iraultzeko, hiru euskal preso politikoek, mitard-ean egongo dira Tarasconera trasladatuak izan arte. Era berean, senideek gutun bidalketa masiboa jarri dute martxan espetxeari presioa egiteko.

Senide eta lagunak

Jose Mari Etxebarria "Goierri"-ren lagunek istripua izan dute Puerto III espetxetik bueltan

Puerto III espetxean dagoen Jesus Mari Etxebarria "Goierri", Oreretako euskal preso politikoaren lagunek istripua izan zuten ekainaren 28an, bisitatik bueltan zetozela.

Burgos parean zeudenean, kamioi batek kargako pieza bat galdu zuen. Hura galtzean, gasolioko tankean jo zuen. Kolpearekin tankea urratu egin zen eta kamioiak autobidean gasolioa isurtzen hasi zen. Horren ondorioz, atzeko hiru kotxeek talka egin zuten. Bisitan zihoazen bi lagunak onik atera ziren. Kotxea ezin izan dute oraindik Euskal Herrira ekarri.

Oscar Cadenas euskal preso politikoaren senideek istripua izan dute Murcia II espetxetik bueltan

Murtziaraino ia 2000 kilometroko joan-etorria egin ostean, istripua izan zuten, uztailaren 2-an arratsaldean, Oscar Cadenas euskal preso politikoaren senideek, Andoainen. Kamioi baten kontra egin zuen kotxeak espetxetik bueltan zetozela. Bost lagun zihoazen ibilgailuan, tartean, Mejikotik etorritako Cadenasen alaba.

Azken lau asteen lau izan dira espetxeetara bidean jazo diren istripuak.

Azken lau asteetako istripuak
Maitane Linazasororen lagunek, Topas espetxera bidean
Iker Limaren lagunek, Badajozeko espetxera bidean.
Oscar Cadenasen senideek, Murcia II espetxetik bueltan.
Jose Mari Etxebarriaren lagunek, Puerto III espetxetik bueltan.

Batez besteko ankerra

Istripu hauek ez dira inondik inora kasualitatea, kausalitatea baizik. Hau 2014 urteko seigarren istripua da, hau da, 185 egun igaro dira urtarrilaren 1etik eta dis-

pertsioak sei istripu eragin ditu: 30 egunetik behin dispertsioak istripu bat eragin du 2014 urtean.

Etxerat elkarteak, beste behin, dispertsioaren salaketa garbia egin nahi du. 25 urte bete dira aurten, dispertsioa, era sistematikoan, martxan jarri zenetik. 25 urte hauetan, 16 lagun eta senide hil dira dispertsioaren ondorioz, errepideetan.

Eskubideen urraketa sistematikoa ahalbidetzen duen tresna da dispertsioa. Noiz arte?

Senide izateagatik kondenatzen gaituzte. Noiz arte? Non daude gure giza eskubideak?

Igor Gonzalezen amarentzako anbulantzia deitzerari uko egin dio Badajozeko espetxeak

Goizez zuen BixentaSola bilbotarrak aurrez aurreko bisita semearekin, iragan uztailaren 26an, Badajozeko kartzelan. Igor Gonzalez Sola euskal preso politikoa bere ama eta bi urteko semearen bisitaren zain zegoen asteburu horretan. Bisita laburra izan zen, Euskal Herritik 700 kilometrotara. Bixentak, adinari dagozkion osasun arazoak dituenez, aurrez aurrekoak beheko pisuko gela baten egiten dituzte. Gela horretan zeuden Igor Gonzalez Sola, Bixenta Sola eta umetxoa ezbeharra gertatu zenean.

Aurrez aurrekoa izaten ari zirela, Bixenta labaindu eta, hormaren kontra jo zen buruarekin. Buruan zauri handia egin eta, odol ugari izurtzen hasi zen. Odola ikustean, larrialdi alarma jo zuten behin eta berriz baina, ez zebilen. Ate joka eta oihuka hasi zen Igor, oso larrituta, odolak etenik ez zuelako. Dena, umetxoaren izu begiradapean. Espetxea, odola, adineko pertsona bat, umea, izua…

Larrialdi alarma ez zebilenez, atea kolpatzen hasi zen Igor. 25 minutu luzez kolpeka egon ostean agertu ziren funtzionarioak. Anbulantzia bat deitzeko eskaria egin bazuen ere, funtzionarioek anbulantziarik ez zutela deituko esan zuten hasiera baten. Medikuari deitzeko eskatu zuten orduan baina, moduluan ez zela eta, gainera, ezin izango zela gerturatu erantzun zuten. Telefonoa hartzeko aukera eskatu zuten ere, anbulantzia deitu ahal izateko baina, honi ere uko egin zioten funtzionarioek, hasieran.

Zaratak entzunda, oihuekin oharturik, aurrez-aurrekoa egiten ari zen beste senide bat gerturatu zen. Bere bitartez, bere laguntzari esker, Bixenta kart-

zelatik atera ahal izan zen. Orduan agertu ziren medikua eta erizaina baina ordurako larrialdietara euren kontura eramatea erabaki zuten senide biek.

Behin kartzela kanpoaldean zeudela, Bixenta espetxeraino lagundu zuten lagunek, burua zapia batez estalirik eta odolez buru bueltan zuela ikusirik, larrituta gerturatu ziren eta Badajozeko urgentzietara eraman.

Azkenean, urgentzietara heldu eta atenditua izan zen. Buruan egindako zaurian, 12 grapa jarri behar izan zizkioten.

Zigor hirukoitza

Etxeratek, beste behin, senideon aurkako eraso zuzena den gertaera hau salatu nahi du, Bixenta Solak Badajozen pairatutakoa. Berriz ere, Giza Eskubideen kontrako eraso bortitz bat. Euskal herritik 700 kilometrotara. Dispertsioak eta espetxe politika honek ahalbidetu eta sustatzen duen eskubideen urraketa sistematikoa. Umearen eskubideak urratu dira, Bixentaren eskubideak urratu dira –osasun eskubidea- eta presoaren eskubideak urratu dira. Berriz ere. Erarik ankerrenean. Bidegabekeria borobila finean.

Etxeraten jarduera

PRENTSAURREKOA

Dispertsioak beste istripu bat eragin du

Prentsaurrekoa, leku berezi batean deitu dugu, kotxe tailerrean, karrozerian. Hementxe baitago asteburuan Villenaraino, Alacanteraino bidaia egin zuen Mirentxin furgoneta. Tamalez, furgoneta honek ere, istripua izan zuen, dispertsioak 2014 urte honetan eragindako zortzigarren istripua pairatu zuten barruan zindoazen sei lagunek.

Furgoneta honi gertatutakoa gure egoeraren metafora lazgarria da. Ia 700 kilometrotako bidea egin ostean, espetxera iristen ari zirela, goizeko ordu txikietan, horma batekin kolpatu ziren. Ostiraletan irteten dira Mirentxineko boluntarioen furgonetak espetxeetara. Bidaiari ekiten dioten askok lana egin dute kotxea, hegazkina, itsasontzia edo furgoneta hartu aurretik. Lana, aste osoko neketsua, espetxera zehaztutako orduan iristeko beharra, tentsioa, urduritasuna… 700 kilometrotako joana, 700 kilometrotako etorria. 1400 kilometro guztira. Villenara kasu honetan. Baina 2000 Km baino gehiago dira Puerto III, Clairvaux edo Baupaume bezalako espetxeetara astero doazenak. Orduak eta orduak errepidean, kasualitatea baino kausalitatea diren istripuak.



Istripu hau uztailaren 19an gertatu zen, urteko 200. Garren egunean gertatu da. Orotara, zortzi istripu jazo dira egun horietan. Horrek, batez bestekoa beldurgarria, ankerra uzten du: dispertsioak, 25 EGUNETIK BEHIN, istripu bat eragin du espetxeetara bidean. 8 istripu 7 hilabeteetan; azken istripuan, bakarrik, 6 kolpatu egon direlarik. Orotara, aurten, 25 lagunek baino gehiagok izan dute istripua.

Dispertsioak 25 urte bete ditu aurten. Samina eta sufrimenduaren urteurren honetan, dispertsioak 25 egunetik behin istripu bat eragin du. Murtzia, Castelló, Topas (bi), Badajoz eta Villabonako espetxeetara bidean gertatu dira istripu horiek. Eta nola ahaztu dispertsioak urte hauetan eragin dituen 16 hildakoak. Hauxe gure errealitatea. Hauxe tristeki, dispertsioaren aurpegia.

Ez hori bakarrik. Dispertsioak ez du etenik. Gure senideen gehienak Euskal Herritik urrunen dauden espetxeetan dituzte

preso. Guztira, egun, 472 euskal preso politiko daude espetxeetan. Horietatik, 196 preso, 1.100 eta 800 kilometrotara daude espetxeratuta. Hau da, 2200 eta 1600 kilometroren arteko bidaiak egitera behartzen gaituzte. Euskal Herriko espetxeetan, ostera, 5 dira espetxean dauden euskal preso politikoak.

Azken asteetan, oihartzun handiko lerroburuak ikusi ditugu. Errealitatea ostera, oso bestelakoa da. Bi preso Mont de Marsanera mugituko zituzten, bai, baina, bitartean, beste bi, Belgikatik oso oso gertu jarri dituzte, Baupaumen. Eta beste hiru, Tarasconeraino eraman dituzte, mediterraneoan. Edo Madriletik Jaenera.

Bitartean, interes politikoak ikusi ditugu, pairatzen ditugu, gure giza eskubideen gainetik. Eskakizunak eta hitzak baina… non daude ekintzak? Noiz arte itxaron behar dugu giza eskubideen urraketa sistematiko honekin amaitzeko?

Milaka gara dispertsioaren eragina pairatu dugun euskal herritarrak. Neurriak, gainera, sufrimendua besterik ez du ekarri baina, horretaz gain, dispertsioak eskubideen urraketa bikoitza suposatzen du ere. Alde batetik, presoaren eskubideak sistematikoki urratzen direlako. Presoak isolatu, bakartu, kolpatu, urrundu eta mediku arretarik gabe uzten dituzte. Euren eskubide guztiak ezabatzen dizkiete eta, oraindik ere, eskubide urraketa horien justifikazioa egiten dute batzuek. Senideoi, senide izateagatik zigortzen gaituzte. Zigor fisikoa, zigor psikologikoa, gizarte zigorra baita zigor ekonomikoa ere. Astebururo 1400 bat kilometro egitera behartzen gaituen zigorra.

Euskal gizarteak argi utzi du, hamaika aldiz, dispertsioarekin amaitzeko ordua dela. Eskubideak errespetatzeko garaia dela. Hori dela eta, dispertsioaren arduradunei honekin amaitu dezaten exijitzen diegu. Aski da! Dispertsioaren oraingo arduradunei, lehengo arduradunei, guztiei. Aski da! Eskubide urraketekin amaitu behar dugu.

Eskerrik asko Mirentxin gidari boluntarioak!






PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA






EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA


IHESLARIAK




IHESLARIAK


FREEDOM
FOR THE BASQU
POLITICAL
PRISONERS!




EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
PRESO ETA
ETXERA


PRESO
EZ!


EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA






FREEDOM
FOR THE BASQU
POLITICAL
PRISONERS!


EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA




EUSKAL PRESOAK

Etxerat-ek lehen sei hilabeteko balantzea aurkeztu eta Iñigo Urkullu Lehendakariari eskura eman dio





Euskal Preso Politikoen Kolektiboa 466

Colectivo de presas y presos políticos vascos ▪ Collectif des prisonniers politiques basques

EUSKAL HERRIA: 5

BASAURI
1.Gogorza Otaegi, Aitzol

MARTUTENE
2.Agirre Goñi, Ekaitz
3.Codo Callejo, Jagoba
4.Maiezkurrena Urkizu, Juan Mari

ZABALLA
5.Martin Hernando, Txus

ESPAINIAR ESTATUA / ESTADO ESPAÑOL / ÉTAT ESPAGNOL: 362

A LAMA (Pontevedra) - 730 km

1.Alonso Abad, Fernando
2.Arizkuren Ruiz, Jose
3.Bravo Maestrojuan, Josu
4.Herrera Vieites, Aitor
5.Ijurko Iroz, Hodei
6.Makazaga Azurmendi, Xabier
7.Marin Mercero, Iñaki
8.Martinez Ahedo, Gorka
9.Nieto Torio, Ruben
10.Olarra Agiriano, Joxe Mari
11.S Sebastian Gaztelumendi, Mikel
12.Berriozabal Bernas, Inma

ALCALA MECO - 450 km

14.Campo Barandiaran, Jose Luis
15.Goieaskoetxea Arronategi, Eneko
16.Uranga Artola, Kemen

ALGECIRAS - 1.100 km

17.Aginaga Ginea, Ibai
18.Albisu Hernandez, Iñigo
19.Arrieta Llopis, Mikel
20.Benaito Villagarcia, Mi Angel
21.Beroiz Zubizarreta, Andoni
22.Cristobal Martinez, Carlos
23.Fano Aldasoro, Unai
24.Garcia Sertutxa, Gorka
25.Gaztelu Otxandorena, J. Miguel
26.Loran Lafourcade, Gorka
27.Preciado Izarra, Jon Kepa (1)
28.Sola Campillo, Aurken
29.Urizar de Paz, German
30.Egues Gurrutxaga, Ana Belen
31.Etxeberria Simarro, Leire

ALMERIA - 1.000 km

32.Arregi Imaz, Xabier
33.Arronategi Azurmendi, Kepa
34.Arruarte Santacruz, Garikoitz
35.Del Olmo Vega, Fernando
36.Ginea Sagasti, Josu
37.Goñi Lara, Luis
38.Krutxaga Elezkano, Iñaki
39.Viedma Morillas, Alberto
40.Yañez Ortiz de Barron, Iratxe

ARANJUEZ (MADRID-VI) - 500 km

41.Almandoz Erbiti, Mikel
42.Aranguren Urroz, Asier
43.Moreno Ramajo, Txabi
44.Garaizar San Martin, Nerea + umea
45.Majarenas Ibarreta, Sara + umea
46.Prieto Furundarena, Anabel + umea
47.Sanz Martin, Olga + umea

BADAJOZ - 750 km

48.Del Hoyo Hernandez, Kepa
49.Fraile Iturralde, Gorka
50.Gabiola Goiogana, Andoni
51.Garcia Justo, Asier
52.Gonzalez Sola, Igor
53.Igerategi Lizarribar, Iñaki
54.Orbegozo Etxarri, Mikel
55.Sota Virto, Fernando
56.Ugalde Zubiri, Andoni

BRIEVA (Avila) - 470 km

57.Agirre Garcia, Oihana

BURGOS - 210 km
58.Arriaga Ibarra, Jesus Felipe
59.Ezkerra Laspeñas, Ekaitz
60.Mendizabal Alberdi, Juan Maria
61.Salutregi Mentxaka, Jabier
62.Urrutia Gonzalez, Oier
63.Zurutuza Sarasola, Jose Antonio

CACERES II - 650 km

64.Betolaza Vilagrasa, Gorka
65.Lima Sagarna, Iker
66.Olabarrieta Olabarrieta, J Mª
67.Olaizola Baseta, Aitor
68.Otegi Eraso, Andoni
69.San Argimiro Isasa, Mikel

CASTELLO I - 590 km

70.Altable Etxarte, Jesus Mª
71.Cabello Perez, Andoni
72.Cano Hernandez, Pedro Maria
73.Gallastegi Sodupe, Orkatz
74.Larrea Azpiri, Zunbeltz
75.Lezkano Bernal, Sergio
76.Otxoa de Eribe Landa, J. Angel
77.Zelarain Ortiz, Oskar
78.Igarriz Izeta, Marta

CASTELLO II –ALBOCASSER - 590 km

79.Aginako Etxenagusia, Asier
80.Aldasoro Magunazelaia,Ramon
81.Alonso Alvarez, Raul
82.Arri Pascual, Alvaro
83.Etxaniz Garcia, Julen
84.Iragi Gurrutxaga, Harriet
85.Karasatorre Aldaz, Juan Ramon
86.Markes Zelaia, Patxi
87.Perez Zorriketa, Ugaitz

CORDOBA (Alcolea) - 810 km

88.Alonso Rubio, Iñaki
89.Calabozo Casado, Oskar
90.Cañas Carton, Iñaki (2)
91.Gallaga Ruiz, Javier
92.Muñoa Arizmendiarrieta, Ibon
93.Perez Aldunate, Xabier
94.Polo Escobes, Sergio
95.Portu Juanena, Igor
96.Solana Matarran, Jon Igor
97.Usandizaga Galarraga, Xabin
98.Vidal Alvaro, Gorka
99.Etxebarria Caballero, Beatriz
100.Perez Aristizabal, Eider

CURTIS (A Coruña) - 650 km

101.Blanco Santisteban, Zigor
102.Borde Gaztelumendi, Joseba
103.Bravo Saez de Urabain, Zigor
104.Eskudero Balerdi, Gregorio
105.Gomez Ezkerro, Jesus Maria
106.Mariñelarena Garziandia, Luis
107.Murga Zenarruzabeitia, Andoni
108.Plazaola Anduaga, Alberto
109.Prieto Jurado, Sebastian
110.Salaberria Etxebeste, Emilio

DAROCA - 360 km

111.Geresta Azurmendi, Ander
112.Gomez Gonzalez, Alberto
113.Olaizola Urien, Aitor

DUEÑAS (Palencia) - 300 km

114.Karrera Arenzana, Asier
115.Lorente Aspiazu, Oier
116.Maruri Basagoitia, Lander
117.Zalakain Garaikoetxea, Jesus Mari

EL DUESO - 225 km

118.Arrieta Prz de Mendiola, Ismael
119.Diez Usabiaga, Rafael
120.Vicente Ugalde, Imanol

ESTREMERA (MADRID VII) - 520 km

121.Ayestaran Legorburu, J Lorenzo
122.Gonzalez Gonzalez, Jon
123.Imaz Munduate, Iñaki
124.Otaño Labaka, Juan Ignacio
125.Alkorta Arrizabalaga, Urtza
126.Jacinto Garcia, Sonia

FONCALENT (Alacant I) - 760 km

127.Badillo Borde, Irkus
128.Lujanbio Galparsoro, Xabier
129.Madina Etxebarria, Tomas
130.Mujika Zubiarrain, Garikoitz
131.Txokarro Zoko, Jorge
132.Uranga Salbide, Patxi
133.Coello Onaindia, Aitziber
134.Gallastegi Sodupe, Lexuri
135.Lasagabaster Anza, Olatz

GRANADA (Albolote) - 870 km

136.Agote Cillero, Arkaitz
137.Aizpuru Giraldo, Eneko
138.Apaolaza Sancho, Iban
139.Barrios Martin, Jose Luis
140.Beaumont Etxebarria, Iñaki
141.Bilbao Solaetxe, Unai
142.Coto Etxeandia, Egoitz
143.Legaz Irureta, Armando
144.Lopez de Okariz, Unai
145.Miner Villanueva, Imanol
146.Olarra Guridi, Juan Antonio
147.Rodriguez Lopez, Asier (2)
148.Ugarte Lpez de Arkaute, Diego
149.Delgado Iriondo, Agurtzane
150.Mujika Goñi, Ainhoa

HERRERA DE LA MANCHA - 620 km

151.Aranburu Muguruza, Xabier
152.Armendariz Izagirre, Iñaki
153.Askasibar Garitano, Mikel
154.Balerdi ibarguren, Xabier
155.Erostegi Bidaguren, Joseba
156.Gorostiaga Gonzalez, Pablo
157.Larretxea Mendiola, Joanes
158.Lopez Gomez, Jon
159.Marcos Alvarez, Faustino
160.Ruiz Jaso, Zigor
161.San Epifanio San Pedro, Felipe
162.San Pedro Blanco, Jon Mirena

HUELVA II - 1.000 km

163.Arginzoniz Zubiaurre, Aritz
164.Balerdi Iturralde, Juan Carlos
165.Besance Zugasti, Juan Carlos
166.Franco Martinez, Bittor
167.Garcia Gaztelu, Xabier
168.Garcia Jodra, Fernando
169.Lasa Mendiaraz, Sebastian
170.Lopez Anta, Angel
171.Maurtua Eguren, Aitzol
172.Olabarrieta Colorado, Iker
173.Ruiz Romero, Patxi
174.Zelarain Errazti, Julen (1)
175.Bengoa Ziarsolo, Nerea176.Gallastegi Sodupe,Irantzu
177.Txurruka Madinabeitia, Lurdes

JAEN II - 780 km

178.Aginagalde Ugartemendia, Beñat
179.Dominguez Atxalandabaso, Iñaki
180.Fresnedo Gerrikabeitia, Aitor
181.Garcia Aliaga, Aitor
182.Goienetxe Alonso, Iñaki
183.Sanpedro Larrañaga, Premin
184.SarasolaYarzabal, Mattin
185.Zapirain Romano, Iñigo
186.Bakedano Maidagan, Oihane
187.Ernaga Esnoz, Joxepa

LOGROÑO - 190 km

188.Aragon Iroz, Santiago
189.De Ibero Arteaga, Ekaitz
190.Etxaburu Markuerkiaga, Eneko
191.Otegi Mondragon, Arnaldo
192.Rodriguez Torres, Arkaitz
193.Saez de la Cuesta, Alicia

MANSILLA (Leon) - 360 km

194.Araguas Jusue, Iker
195.Franco Gonzalez, Aitor
196.Gonzalez Endemaño, Jorge
197.Korta Carrion, Mikel
198.Landaberea Torremotxa, Arkaitz
199.Murga Luzuriaga, Francisco
200.Murga Luzuriaga, Isidro
201.Comes Arranbillet, Olga

MONTERROSO (Lugo) - 640 km

202.Aiensa Laborda, Ibai
203.Aiensa Laborda, Mikel
204.Ibarra Izurieta, Bigarren
205.Lejarzegi Olabarrieta,Endika
206.Zubizarreta Balboa, Kepa

MURCIA I - 830 km

207.Martinez Arkarazo, Gorka
208.Martinez del Campo, Oier
209.Novoa Arroniz, Jose Mari
210.Ramada Estevez, Fco Jose
211.Segurola Beobide, Joseba
212.Tome Queiruga, Ventura

MURCIA II - 830 km

213.Andueza Antxia, Oier
214.Arietaleaniz Telleria, Iñaki
215.Arkauz Arana, Josu
216.Atristain Gorosabel, Javier
217.Cadenas Lorente, Oskar
218.Izpura Garcia, Mikel
219.Labeaga Garcia, Urko
220.Sagarzazu Gomez, Kandido
221.Troitiño Ciria, Jon
222.Garcia Montero, Ainoa
223.Mardaras Orueta, Oihana

NAVALCARNERO - (MADRID IV) - 480 km

224.Alberdi Casanova, Egoi
225.Iparragirre Burgoa, Ibon
226.Lopez de la Calle Uribarri, Egoitz

OCAÑA I - 520 km

227.Esnaola Dorronsoro, Aitor
228.Garcia Arrieta, Garikoitz
229.Gomez Larrañaga, Aratz
230.Herrador Pouso, Juan Carlos
231.Oiartzabal Ubierna, Anartz
232.Otegi Unanue, Mikel

OCAÑA II - 520 km

233.Galarraga Godoi, Eneko
234.Garcia Mijangos, Jose
235.Gisasola Olaeta, Arnaltz
236.Lopez Gonzalez, Jesus Maria
237.Santesteban Goikoetxea, Iñaki
238.Trenor Dicenta, Karlos

PUERTO I - 1.050 km

239.Almaraz Larrañaga, Agustin
240.Atxurra Egurrola, Julen
241.Castro Sarriegi, Alfonso
242.Elejalde Tapia, Fernando
243.Guridi Lasa, Iñigo
244.Gurtubai Sanchez, Sebastian
245.Gutierrez Carrillo, Iñigo (7)
246.Lauzirika Oribe, Karmelo
247.Lerin Sanchez, Jose Angel
248.Orbe Sevillano, Zigor
249.Ordoñez Fernandez, Josu
250.Saez Arrieta, Arkaitz
251.Urretabizkaia Saukillo, Jon
252.Zabalo Beitia, Xabier
253.Zubiaurre Agirre, Jon

PUERTO III - 1.050 km

254.Agirrebarrena Beldarrain, Aitor
255.Alegria Loinaz, Xabier
256.Barreras Diaz, Oskar
257.Beobide Arza, Ibai
258.Bilbao Goikoetxea, Iñaki
259.Castro Zabaleta, Manex
260.Cotano Sinde, Aitor
261.Dorronsoro Malaxetxebarria, J.M
262.Enbeita Ortuondo, Joseba
263.Etxeberrria Garaikoetxea, J Mari
264.Gramont, David
265.Matanzas Gorostizaga, Jose Mª
266.Parot Navarro, Unai
267.Pastor Alonso, Daniel
268.Rey Urmeneta, Xabier
269.Zulueta Amutxastegi, Arantza (10)

SEGOVIA - 410 km

270.Enparantza Agirre, Jon (8)

SEVILLA - 910 km

271.Agirre Bernadal, Iker
272.Agirre Odriozola, Jabi
273.Agirresarobe Pagola, Gurutz
274.Arakama Mendia, Iñaki
275.Arriaga Arruabarrena, Rufino
276.Arzalluz Goñi, Asier
277.Etxabarri Garro, Juan Mª
278.Etxeberria Goikoetxea, Garikoitz
279.Goikoetxea Garralda, Jesus
280.Lebrero Panizo, Roberto
281.Vallejo Franco, Iñigo

SORIA - 270 km

282.Arretxe Salbide, Mikel
283.Etxeberria Arbelaitz, Jose Antonio
284.Rodriguez Mallabiarrena, Josu
285.Sagardoi Lana, Xabier

SOTO DEL REAL (MADRID V) - 410 km

286.Aranibar Almandoz, Joseba
287.Etxaburu Artetxe, Aitzol
288.Fuentes Villota, Raul
289.Lerin Sanchez, Iñaki
290.Narvaez Goñi, Juan Jesus
291.Alberdi Uranga, Itziar
292.Orkolaga Etxaniz, Aintzane



TERUEL - 450 km

293.Ormazabal Lizeaga, Asier
294.Peña Balantzategi, Ibai

TOPAS (Salamanca) - 440 km

295.Askasibar Barrutia, Vicente
296.Astorkizaga Arriaga, Gaizka (2)
297.Crespo Ortega, Jon
298.Etxeandia Meabe, Jose Miguel
299.Etxeberria Martin, Iñaki
300.Hernandez Sistiaga, Unai
301.Inziarte Gallardo, Juan Manuel
302.Lupiañez Mintegi, Gorka
303.Samaniego Curiel, Ekaitz
304.Ugarte Villar, Xabier
305.Arriaga Martinez, Josune
306.Linazasoro Lopez, Maitane

VALENCIA II (Picassent) - 540 km

307.Azkona Dominguez, Ibai
308.Belasko Armendariz, Alex
309.Esnal, Juan
310.Mujika Dorronsoro, Juan Mari
311.Saenz Olarra, Balbino
312.Zubiaga Bravo, Manex

VALENCIA III (Picassent) - 540 km

313.Azurmendi Peñagarikano, Mikel
314.Badiola Lasarte, Asier
315.Camacho Elizondo, Jose
316.Galarza Quirce, Luis Angel
317.Mardones Esteban, Asier
318.Merino Bilbao, Guillermo
319.Subijana Izquierdo, Juan Carlos
320.Balda Arruti, Josune
321.Barbarin Iurrebaso, Ainhoa
322.Pedrosa Barrenetxea, Maite
323.ArmendarizG.Langarika,Lierni + umea
324.Jauregi Amondarain,Oskarbi + umea
325.Mendizabal Mujika, Idoia
326.Oña Ispizua, Josune + umea
327.Otaegi Tena, Nahikari + umea

VALLADOLID (Villanubla) - 340 km

328.Amaro Lopez, Gotzon
329.Antza Illarreta, Arkaitz
330.Fernandez Arratibel, Adur
331.Galarraga Arrona, Jose Antonio
332.Sebastian Iriarte, Alfontso
333.Zubiaga Lazkano, Xeber
334.Zabaleta Telleria, Miren

VILLABONA (Asturias) - 440 km

335.Bustindui Urresola, Alexander
336.Etxaniz Alkorta, Sebas
337.Intxauspe Bergara, Manuel
338.Lopez de Abetxuko Liki., Jose R.
339.Sadaba Merino, Javier

VILLENA (Alacant II) - 720 km

340.Aranburu Sudupe, Gotzon
341.Arregi Erostarbe, Joseba
342.Arrozpide Sarasola, Santiago
343.Berasategi Eskudero, Ismael
344.Goikoetxea Basabe, Arkaitz
345.Goitia Abadia, Oier
346.Iglesias Chouza, Juan Carlos
347.Tximeno Inza, Xabier
348.Vila Mitxelena, Fermin
349.Beloki Resa, Elena
350.Lizarraga Merino, Maria
351.Zuazo Aurrekoetxea, Maialen

ZUERA (Zaragoza) - 300 km

352.Agirre Lete,Juan Luis
353.Bilbao Beaskoetxea, Iñaki
354.Bilbao Gaubeka, Iñaki
355.Egibar Mitxelena, Mikel
356.Etxeberria Sagarzazu, Kepa
357.Garces Beitia, Iñaki
358.Garcia Razkin, Sergio
359.Legina Aurre, Kepa
360.Martinez de Osaba Arregi, Igor
361.Mujika Garmendia, Francisco
362.Uribarri Benito, Asier
363.Zabaleta Elosegi, Jose Jabier

FRANTZIAR ESTATUA / ESTADO FRANCÉS / ÉTAT FRANÇAISE: 98

ARLES - 750 km

1.Elorrieta Sanz, Ibon (100)
2.Lopez de Bergara Astola, Iñaki (238)

BAPAUME - 1.080 km

3.Aramendi Jaunarena, Alaitz (5 912)
4.Garmendia Marin, Oihana (5 913)

BEZIERS - 523 km

5.Arruabarrena Carlos, Jabi (5 363)
6.Mujika Andonegi, Ander (5 364)

BOIS D'ARCY - 930 km

7.Garitagoitia Salegi, Iurgi (77 213)
8.Iriondo Yarza, Aitzol (82 595)
9.Lariz Bustindui, Andoni (82 226)
10.Oa Pujol, Oier (80 599)

BORDEAUX-GRADIGNAN - 330 km

11.Agirregabiria del Barrio, Arkaitz (71 587)

CLAIRVAUX - 1.050 km

12.Bengoa Lpz de Armentia, Asier (10 718)
13.Eskisabel Urtuzaga, Peio (10 530)
14.Oiarzabal Txapartegi, Asier (10 420)

FLEURY MEROGIS - 930 km

15.Elizaran Aguilar, Aitor (376 473K D1)
16.Goieaskoetxea Arronategi, ibon (401 847 D2)
17.Goikoetxea Gabirondo, Andoni (403 192 C D3)
18.Iturbide Otxoteko, Joseba (398 855 D3)
19.Mendinueta Mintegi, Iurgi (382 026 W D2)
20.Oses Carrasco, Jose Javier (396 380 Y D3)
21.Salaberria Sansinea, Jon (366 076 J D2)
22.Suberbiola Zumalde, Igor (366 075 H D1)
23.Bernadó Bonada, Marina (405 569 M)
24.Eizagirre Zubiaurre, Ekhiñe (404 834 N)
25.Ozaeta Mendikute, Ainhoa (366 074 G 6E)
26.Plaza Fernandez, Itziar (374 574 W)

FRESNES - 930 km

27.Curto Lopez, Saul (965 476)
28.Errazkin Telleria, Ugaitz (963 651)
29.Ibarguren Sarasola, Oier (967 500)
30.Iruretagoiena Lanz, Luis (933 266)
31.Matxain Beraza, Alberto (945 144 D1)
32.Beyrie, Lorentxa (954 917)
33.Moreno Martinez, Itziar (969 134)

LANNEMEZAN - 330 km

34.Agerre, Didier (1 993)
35.Aranburu, Frederic (1 594)
36.Esparza Luri, Iñaki (2 199)
37.Fernandez Iradi, Ibon (2 226)
38.Lete Alberdi, Jose Ramon (2 196)
39.Segurola Kerejeta, Joseba (2 387)

LIANCOURT - 1.000

40.Etxeberria Oiarbide, Jon (8 739)
41.Oroz Torrea, Mikel (9 861)
42.Saez de Jauregi Ortigosa, Iban (7 188)

LYON CORBAS -900 km

43.Aranburu Sagarminaga, Xabier (10 954)
44.Labaka Larrea, Urko (5 213)
45.Zobaran Arriola, Alejandro (5 216)
46.Lozano Miranda, Jone (5 331)

MARSEILLE LES BAUMETTES - 970 km

47.Ezeiza Aierra, Asier (173 280)
48.Errasti Goiti, Zuhaitz (173 661)
49.Sirvent Auzmendi, Ekaitz (173 872)

MEAUX-CHAUCONIN-NEUFMONTIERS - 970 km

50.Gomez Mielgo, Oier (13 238)
51.Gurrutxaga Gogorza, Oroitz (10 984)
52.Uriarte Lopez de Vicuña, Igor (12 084)

MONT DE MARSAN - 234 km

53.Akarregi Casas, Alexander
54.Ardanaz Armendariz, Oier (5 090)

MOULINS-YZEURE - 800 km

55.Abaunza Martinez, Javier (14 610)
56.Martitegi Lizaso, Jurdan (14 736)

MURET CD - 430 km

57.Parot Navarro, Ion (9 680)
58.Zeberio Aierbe, Jose (10 942)

MURET SEYSSES - 430 km

59.Mujika Andonegi, Julen (22 163)
60.Rivero Campo, Ruben (22 981)

NANTERRE - 930

61.Barandalla Goñi, Oihan (38 872)
62.Borrero Toribio, Asier (33 719)

OSNY - 970 km

63.Etxeberria Aierdi, Urtzi (53 117)
64.Fernandez Aspurz, Joseba (52 295)
65.Gutierrez Elordui, Borja (52 293)
66.Mendizabal Elezkano, Julen (53 662)
67.Sancho Marco, Iñigo (52 294)

POITIERS VIVONNE - 550 km

68.Aduna Vallinas, Raul (4 136)
69.Urbieta Alkorta, Josu (4 134)
70.Varea Etxebarria, Montxo Arkaitz (4 135)
71.Aranalde Ijurko, Maite (851)
72.Lesaka Arguelles, Izaskun (2 817)

POISSY - 950 km

73.Garate Galarza, Enrique (11 807)
74.Otxoantesana Badiola, Jon Aingeru (11 765)
75.Vicario Setien, Gregorio (11 498)

REAU SUD FRANCILIEN - 930 km

76.Albisu Iriarte, Mikel (3 002)
77.Karrera Sarobe, Mikel (3 358)
78.Lopez de Lacalle Gauna, Alberto (2 090)
79.Chivite Berango, Mercedes (3 997)
80.Iparragirre Genetxea, Marixol (3 001)

RENNES - 800 km

81.Areitio Azpiri, Alaitz (7 992)
82.Gimon, Lorentxa (7 228)
83.Lopez Resina, Maria Dolores (7 075)

ROANNE - 850 km

84.Sanchez Iturregi, Saioa (2 007)
85.Zaldua Iriberri, Miren Itxaso (930)

SAINT MARTIN DE RE - 550 km

86.Esnal, Jakes (14 207)
87.Martinez Bergara, Fermin (14 461)
88.Merodio Larraona, Zigor (14 716)
89.Rubenach Roiz, Jon (14 494)

SAINT MAUR - 680 km

90.Bienzobas Arretxe, Jon (4 637)
91.Elizegi Erbiti, Iñigo (4 403)
92.Garro Perez, Zigor (4 676)
93.Ilundain Iriarte, Alberto (4 262)
94.Maiza Artola, Juan Cruz (4 635)
95.Palacios Aldai, Gorka (4 740

VILLEPINTE - 950 km

96.Arkauz Zubillaga, Kepa (30 814)

INGALATERRA: Etxean preso:

Troitiño Arranz, Antton

PORTUGAL: MONSANTO - LISBOA

Zengotitabengoa Fernandez, Andoni

gaixotasun larriak dituzten presoak

Jesus Mª MARTIN HERNANDO (Basauri) : Zaballa. 1960. urtean jaioa. 2002an atxilotua. Nahasmen eskizo-afektiboa delirio osagarriarekin. **BAKARTUA**

Josetxo ARIZKUREN RUIZ (Iruñea) : A Lama (A Coruña). 1958an jaioa. 1999an atxilotua. Kardiopatia iskemiko larria. Kateterismoa: Stent hodi batean.

Jose Ramon LOPEZ DE ABETXUKO LIKINIANO (Gasteiz): Villabona (Asturias). 1949an jaioa. 1989an atxilotua. Bradikardia sintomatikoa. Fibrilazio aurikularra, Prostatako adenoma.

Inmaculada BERRIOZABAL BERNAS (Zegama/Elorrio): A Lama (Pontevedra). 1951ean jaioa. 2009an atxilotua. Psoriasi artropatia, Diabetesa (DM-II), Diabetes oina, hipertentsioa, azkazaletako psoriasia, Asma bronkiala, belaunetako protesia.

Gari ARRUARTE SANTA CRUZ (Hernani): Almeria. 1980an jaioa. 2003an atxilotua. Espondilitisa.

Iñaki ETXEBERRIA MARTIN (Iruñea). Topas (Salamanca). 1964ean jaioa. 1996an atxilotua. Eboluzio luzeko Miopia Magnoa. Eskuineko begiko erretina hemorragia, Ikusmen zorroztasunaren galera, ezkerreko begiko afaquia.

Aitzol GOGORZA OTAEGI (Orereta) - Basauri. 1975ean jaioa. 1999an atxilotua. Obsesio Konpultsio Nahastea. **BAKARTUA**

Jose Miguel ETXEANDIA MEABE (Larrabetzu) - Topas (Salamanca).1960an jaioa. 2003an atxilotua. Nahaste obsesibo konpultsiboa, Hepatitis C.

Ibon FERNANDEZ IRADI (Hernani) – Lannemezan (Frantziar estatua). 1971ean jaioa. 2003an atxilotua. Esklerosi anizkoitza.

Ventura TOMÉ QUEIRUGA (Tafalla) – Murcia I. 1953an jaioa. 2011n atxilotua. Prostatako adenoma kartzinoma.

Ibon IPARRAGIRRE BURGOA (Ondarroa) - Basauri. 1973an jaioa. 2010ean atxilotua. IHESa C estadioan, Orbana burmuineko ezker lobuloan, ikusmen galera eta beste funtzio kognitibo batzuen kaltea ekartzen dituena. **BAKARTUA.**

ESPETXERATZE ARINDUA

1. Juan Pablo Dieguez Lopez
2. Jose Luis Elkoro Unamuno
3. Jose Ramon Foruria Zubialde
4. Mikel Gil Cervera
5. Belen Gonzalez Peñalva
6. Milagros Ioldi Mujika
7. Juan Jose Rego Vidal